

BILBOKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEKO ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

<u>Aurkibidea</u>	<u>or.</u>
Atariko titulua. Xedapen orokorrak	1
I. titulua. Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialaren antolakuntzaren definizioa	1
I. kapitulua. Xedapen orokorrak	1
II. kapitulua. Taldeko aginte-organoak	2
I. atala. Ordezkaritza Organo Gorena	2
II. atala. Irakasleen Klaustroa	3
III. atala. Zuzendaritza taldea	4
III. kapitulua. Lagun bakarreko aginte-organoak	4
IV. kapitulua. Irakasleen koordinaziorako organoak	6
I. atala. Didaktika-sailak	6
II. atala. Koordinazio pedagogikorako batzordea	8
V. kapitulua. Tutoretzak	8
VI. kapitulua. Irakasleak	9
II. titulua. Bizikidetzarako arauak	10
I. kapitulua. Printzipio orokorrak	10
II. kapitulua. Ikasleen eskubideak	11
III. kapitulua. Betebeharrak zuzen gauzatzeko bermeak	12
III. titulua. Errendimendu akademikoaren ebaluazio objektiboa	13

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialaren izendapena, irakaspenak eta izaera

Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala (aurrerantzean HEO) ikastegi publikoa da, eta araubide bereziko irakaskuntzen barruan, helduentzako hizkuntza eskolak ematen ditu.

I. TITULUA. BILBOKO HEOaren ANTOLAKUNTZAREN DEFINIZIOA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

2. artikulua. Aginte-organoak

Bilboko HEOak honako taldeko eta lagun bakarreko aginte-organoak izango ditu:

- a) Taldeko aginte-organoak: Ordezkaritza Organo Gorena (aurrerantzean OOG); irakasleen klaustroa eta zuzendaritza-taldea.
- b) Lagun bakarreko aginte-organoak: zuzendaria, zuzendariordea, ikasketa-burua eta idazkaria.

3. artikulua. Hezkuntza Erkidegoaren parte-hartzea

Ikasleen, irakasleen, administrazioko eta zerbitzuetako langileen eta udalaren parte-hartzea Bilboko HEOean OOGaren bitartez egingo da.

4. artikulua. Koordinazio didaktikorako organoak

Bilboko HEOeko koordinazio didaktikorako organoak klaustroaren zuzendaritzapean egongo dira, eta honako hauek izango dira: koordinazio pedagogikorako batzordea, didaktika sailak eta ikasturte edo/eta mailetak irakasle-taldeak.

5. artikulua. Aginte-organoen, parte-hartze organoen eta koordinazio didaktikorako organoen jarduera-printzipioak

1. Zentroko aginte-organoak, parte-hartze organoak eta koordinazio didaktikorako organoak, bertako jarduerak Euskal Eskola Publikoaren Legean (aurrerantzean EEPL) jasotzen diren printzipio eta balioei jarraituz egin daitezten, legeak eta gainerako xedapenek ezarritako hezkuntza-xedea bete dadin eta irakaskuntza kalitatekoa izan dadin arduratuko dira.
2. Horrez gain, aginte-organoek, parte-hartze organoek eta koordinazio didaktikoko organoek, zeinek bere eskumenen eremuan, ikasleei, irakasleei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei datzekien eskubideen jarduna bermatuko dute, eta bakoitzak dagozkion betebeharrak bete ditzan jagongo dute.
3. Era berean, hezkuntza-erkidego osoak ikastegiaren bizimoduan, kudeaketan eta ebaluazioan parte har dezan ahalbidetuko dute.

II. KAPITULUA. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK

I. ATALA. BILBOKO HEOeko OOGa

6. artikulua. Bilboko HEOeko OOGaren izaera eta osaera

1. Bilboko HEOeko OOGa hezkuntza-erkidegoko kideek zentroaren aginte-organoetan parte hartzeko bidea da. Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Eskola Kontseilua izena edukiko du.
2. OOGaren eskumenak.
Bilboko HEOeko OOGak EEPLren 31. artikulua aintzatesten dizkion eskumenak ditu. (I. eranskina)
3. Bilboko HEOeko OOGak honako kide hauek izango ditu: (EEPL 32.2, II. eta III. Eranskinak)
 - a) Zuzendaria, eta bera izango da buru.
 - b) Ikasketa-burua.
 - c) Klaustroak aukeratutako hamar irakasle.
 - d) Ikasleen hamabost ordezkari.
 - e) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
 - f) Udalaren ordezkari bat.
 - g) Zentroko idazkaria, eta bera izango da OOGeko idazkaria ere, hizpidez baina botorik gabe.

7. artikulua. OOGaren hautaketa eta berritzea

OOGeko kideak berritzeko prozedura bi urtean behin egingo da, eta aldi bakoitzean erdia berrituko da, txandaka, hura arautzen duen dekretuan xedatzen denari jarraikiz, eta Hezkuntza Sailak argitaratzen dituen deialdien arabera.

8. artikulua. Presidentearen eta idazkariaren ordezkapena

1. Zuzendaririk ez badago, zuzendariordeak jardungo du OOGaren buru, eta biak falta badira, ikasketa-buruak jardungo du buru, edo, kasu bada, ikastegiko OOGeko kide diren irakasleetatik antzinakoena.
2. Idazkariaren ordezkari ikastegiko OOGeko kide diren irakasleetatik gazteenak jardungo du, eta botoa emateko eskubidea izaten jarraituko du.

9. artikulua. OOGaren jardura araudia

1. Ohiko bileretan, zuzendariak bidaliko dizkie deialdia, gai-zerrenda eta eztabaidatu eta, kasu bada, onartuko den dokumentazioa OOGeko kideei bilera ordua baino gutxienez hirurogeita hamabi ordu lehenago.
2. Ohikoez gain, aparteko deialdiak ere egin daitezke, bilera ordua baino gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago, tratatuko diren gaien izaeragatik edo premiagatik gomendagarria bada.
3. OOGak hiru bilera egingo ditu urtean gutxienez, eta zuzendariak deitzen duenean edo kideetako heren batek eskatzen duenean. Dena dela, ikasturte hasieran eta ikasturte bukaeran

bilera egitea derrigorrezkoa izango da. OOGaren bileretara derrigor joan behar dute bertako kide guztiek.

4. OOGeko erabakiak gehiengo soilez hartuko dira zuzendariaren izendapena atzera botatzeko izan ezik, horretarako bi hereneko gehiengoa behar izango baita.
5. Araudi honetan eta hezkuntza arloko legerian aurreikusten ez den guztirako, OOGaren funtzionamendua Administrazio Prozedurari buruzko Legearen II Tituluko 2. kapituluaren xedatzen denari doituko zaio. (IV. eranskina)

10. artikulua. OOGeko batzordeak

1. OOGak batzorde iraunkorra izango du EEPLaren 36.3 artikuluan xedatzen diren funtzioak betetzeko eta berarengan eskuordetzen den beste edozein funtzio betetzeko. Zuzendariak, ikasketa-buruak, idazkariak, irakasle batek, ikasle batek eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari batek osatuko dute, bakoitza dagokion arloan hautatua. Erabakiak gehiengoz hartuko dira eta boto haztatuaren sistema erabiliko da. (V. eranskina)
2. Batzorde iraunkor horrek batzorde ekonomikoaren funtzioa ere beteko du, eta berari esleitzen dizkieten ekonomiari buruzko bestelako gaien gaineko informazioa emango dio. (VI. eranskina)
3. OOGak beste batzorde batzuk ere eratu ahal izango ditu gai espezifikoak lantzeko, sortze-akordioan esleitzen zaion moduan eta ematen zaizkion eskumenekin. Sortzen diren batzorde guztiek egin ahal izango dituzte euren eskumeneko gaiei buruzko ikerketak, txostenak eta proposamenak. Zuzendariak, ikasketa-buruak, irakasle batek, ikasle batek eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari batek osatuko dute, bakoitza dagokion arloan hautatua. Erabakiak gehiengoz hartuko dira eta boto haztatuaren sistema erabiliko da.

II. ATALA. IRAKASLEAREN KLAUSTROA

11. artikulua. Irakasleen klaustroaren izaera eta osaera

1. Klaustroa, Bilboko HEOeko aginte-organoa izanik, irakasleek parte hartzeko berezko organoa eta ikastegiko koordinazio didaktikorako goi-organoa da, eta ikastegiko bertako hezkuntza-alorreko gai guztiak planifikatzeko, koordinatzeko, erabakitzeko eta haiei buruzko informazioa emateko ardura dauka.
2. Klaustroaren buru zuzendaria izango da, eta ikastegian zerbitzua ematen duten irakasle guztiek osatuko dute. Klaustroko idazkaria Bilboko HEOeko idazkaria bera izango da.
3. Zuzendaria ez badago, zuzendariordea izango da klaustroaren buru, eta biak falta badira, ikasketa-buruak jardungo du klaustroaren buru. Aurreko guztiak falta badira, hierarkia handieneko irakaslea, irakasle antzinakoena edo irakaslerik zaharrena izango da buru, ordena horretan. Idazkariaren ordezkari ikastegian behin betiko destinoa duen irakaslerik gazteenak jardungo du.

12. artikulua. Klaustroaren funtzionamendurako araudia

1. Klaustroak hiru bilera egingo ditu urtean gutxienez, eta zuzendariak deitzen duenean edo kideetako heren batek eskatzen duenean. Derrigorrezkoa izango da ikasturte hasieran eta ikasturte amaieran klaustroak bilera egitea.
2. Klaustroaren bileretara derrigor joan behar dute bertako kide guztiek.

3. Ohiko saioetako deialdia hirurogeita hamabi orduko aurrerapenaz egin behar da gutxienez. Salbuespen gisa, tratatu beharreko gaien izaerak edo premiak hala eskatuta, aparteko saioetarako deia egin ahal izango da, gutxienez berrogeita zortzi orduko aurrerapenarekin.
4. Araudi honetan eta hezkuntza arloko legerian aurreikusten ez den guztirako, klaustroaren funtzionamendua Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen II Tituluko 2. kapituluan xedatzen denari doituko zaio. (IV. eranskina)

13. artikulua. Klaustroaren eskumenak

Irakasleen klaustroari EEPLaren 35. artikuluan eta indarrean dauden gainerako xedapenetan jasotzen diren funtzioak betetzea dagokio. (VII. eranskina)

III. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA

14. artikulua. Zuzendaritza-taldea

1. Lagun bakarreko aginte-organismoek osatzen dute Bilboko HEOeko zuzendaritza-taldea, eta euren zeregina betetzeko, modu koordinatuan jardungo dute.
2. Zuzendaritza taldeak EEPLaren 36. artikulua esleitzen dizkion funtzioak izango ditu, bai eta OOGak edo klaustroak harengan eskuordetzen dituztenak ere, bakoitzari dagozkion eskumenen barruan. (V. eranskina)
3. Zuzendaritza taldeak, egoki irizten badio, hezkuntza-erkidegoko edozein kide gonbidatu ahal izango du bileretara, aholkulari gisa. Era berean, komeni diren funtzioak ikastegiko irakasleengan eskuordetu ahal izango ditu, bereziki sailtako buruengan edo proiektu jakinen ardura duten irakasleengan.
4. Bilboko HEOean, lagun bakarreko honako organo hauek osatzen dute zuzendaritza taldea:
 - Zuzendariak
 - Zuzendariordeak
 - Ikasketa-buruak
 - Idazkariak

III. KAPITULUA. LAGUN BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK

15. artikulua. Zuzendaria

1. Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialaren zuzendariak ordezkatu du ikastegia ondorio guztietarako; bera da Hezkuntza Administrazioaren berezko ordezkaria eta Taldeko aginte-organismoetako burua da.
2. Zuzendariaren atribuzioak eta eskumenak EEPLaren 34. artikulua xedatzen dituenak dira. (VIII. eranskina)

16. artikulua. Zuzendariordea

Zuzendariordeari, zuzendaritza-taldeko kide izateagatik dagozkion eskumenez gain, honako hauek ere badagozkio:

1. Zuzendaria ez dagoen guztietan haren ordezkari jardutea, eta bere funtzioak bitartekaritza betetzea.
2. Zuzendariak beren beregi haren esku uzten duen edo esleitzen dion beste edozein funtzio.

17. artikulua. Ikasketa-burua

Ikasketa-buruak, zuzendaritza-taldeko kide gisa dagozkion eskumenez gain, EEPLaren 41. artikulua esleitzen dizkion eskumenak ere izango ditu. Ikasketa-burua, eskuordetzeaz edo zuzendariaren agintaritzaren pean, irakasle guztien buru izango da ikasketa-araudiari dagokion guztian, eta berak koordinatuko ditu sailtako buruen eta tutoreen jardunak. (IX. eranskina)

18. artikulua. Idazkaria

Idazkariak, zuzendaritza-taldeko kide gisa dagozkion eskumenez gain, EEPLaren 42. artikulua esleitzen dizkion eskumenak ere izango ditu. Eskuordetzeaz eta zuzendariaren agintaritzaren pean, administrazio eta zerbitzuetako langileen buru jardungo du. (IX. eranskina)

19. artikulua. Lagun bakarreko aginte-organoetako kideak izendatzeko eta kargutik kentzeko proposamenak

Lagun bakarreko aginte-organoetako kideak izendatzeko eta kargua uzteko proposamenak EEPLan eta gainerako arauetan xedatzen denaren arabera egingo dira.

20. artikulua.- Zuzendaritza taldeko kideen ordezkapena

1. Zuzendaria ez badago edo gaixorik badago, zuzendariordeak beteko ditu haren funtzioak behin behinean.
2. Zuzendariordea ez badago edo gaixorik badago, ikasketa-buruak beteko ditu haren funtzioak behin behinean.
3. Ikasketa-burua ez badago edo gaixorik badago, zuzendariak izendatutako irakasleak beteko ditu haren funtzioak behin behinean, eta zuzendariak OOGari emango dio erabaki horren berri.
4. Idazkaria ez badago edo gaixorik badago, haren zereginak zuzendariak izendatutako irakasleak beteko du, eta horren berri emango dio OOGari.
5. Zuzendaria ez dagoelako edo gaixorik dagoelako zuzendariordea jardunean bada, haren eskumen guztiak erabili ahal izango ditu, bai eta artikulua honen 3. eta 4. ataletan jasotzen direnak ere.

IV. KAPITULUA. IRAKASLEAREN KOORDINAZIORAKO ORGANOAK

21. artikulua. Bilboko HEOaren koordinaziorako organoak

Bilboko HEOean irakasleen koordinaziorako honako organo hauek egongo dira:

- 1) Didaktika-sailak, ikasturtearen antolakuntzari dagokionez, Hezkuntza Sailburuordeak emandako ebazpenean zehaztutakoari jarraikiz, urtero eratuko dira.

- 2) Koordinazio pedagogikorako batzordea.
- 3) Ikasturte eta/edo mailako irakasle taldeak.

I. ATALA. DIDAKTIKA-SAILAK

22. artikulua.- Didaktika-sailen izaera eta osaera

1. Irakasten diren hizkuntzatan beste didaktika-sail daude. Didaktika-sailen ardura izango da hizkuntza bakoitzaren irakaskuntza antolatzea eta garatzea. Sailaren buruaren zuzendaritzapean, hizkuntza bera ematen duten irakasleen arteko koordinazioa bermatzea du xede. Haien zeregina eta egiten duten lana bertako kide guztien ardura da.
2. Sail bakoitzak, indarrean dagoen legeriaren arabera, irakaskuntza eta ebaluazio-jardueren urteko plan, helburu eta irizpide pedagogiko eta metodologikoak eta irakaskuntza horretarako beharrezkoa den bibliografia zehaztuko du eta ikasle ofizialen eta librean esku utziko du ikasturte bakoitzaren hasieran.
3. Irakasle guztiek eman beharko dute, batez beste, astean ordubete saileko ohiko bilera egiteko; alde batera utzi gabe saileko buruak egoki iritzita edo, kasu bada, saileko kideen heren batek eskatuta deitu daitezkeen aparteko bilerak.
4. Sailaren zuzendaritza sailaren buruaren esku egongo da, eta sailburu laguntzailea eta ikasturte edo maila bakoitzeko koordinatzaile bat eduki ditzake sailaren tamainak edo lanaren bolumenak hala eskatzen duen kasuetan.
5. Sailak bertako buruak, ikasketa-buruak, zuzendariak edo saileko kideen heren batek egoki irizten dion bakoitzean egingo du bilera. Bilera bakoitzean hartutako erabakien akta jasoko da sailean.
6. Dagokion hizkuntza irakasten duten irakasle guztiak izango dira sail horretako kide.
7. Irakasle batek hizkuntza bat baino gehiago irakasten badu, ordu gehien ematen duen hizkuntzari dagokion sailekoa izango da. Hala ere, ematen dituen beste hizkuntzei dagozkien beste sail batzuetako bileretan, lanetan eta erabakietan ere parte hartu ahal izango du.

23. artikulua. Didaktika sailen eta sailtako buruen funtzioak eta eskumenak

Didaktika sailak eta bertako buruek, urtero, ikastaroaren antolakuntzari dagokionez, Hezkuntza Sailburuordeak emandako ebazpenean eta indarrean dauden gainerako arauetan zehaztutako zereginak onartuko dituzte (X. eranskina). Sailaren buruaren zereginak honako hauek dira:

1. Didaktika sailaren jarduera osoa zuzentzea eta koordinatzea.
2. Ikasketa-buruarekin batera sailaren ordutegia antolatzen eta irakasle bakoitzari ikasturtean eman behar duen/dituen maila esleitzen laguntzea.
3. Saileko irakasleekin egin beharreko bilerak antolatzea, prestatzea eta zuzentzea, eta bertako irakasleen artean lanak banatzea.
4. Egiten diren bileretako aktak egongo direla bermatzea.
5. Emango den irakaskuntzaren programazio orokorra egitea indarrean dauden programa ofizialetan oinarrituta, eta edukiei, metodologiari eta ebaluazioari dagokienez, programa betetzen dela bermatzea, saileko irakasleen laguntzarekin.
6. Sail bakoitzean eta ikasle ofizial eta libreekin erabiliko diren ebaluazio-prozedurak eta materialak planifikatzea eta aplikazioa artezte.

7. Saileko jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak planifikatzea eta koordinatzea, indarrean dauden xedapenei jarraituz.
8. Ikasketa-buruarekin harremanetan egotea sailaren jarduerak ikastegiko beste jarduera batzuekin koordinatzeko eta aurreikusitako lan-plangintzaren bilakaeraren berri eta sailean erreparatzen duen edozein anomaliaren berri emateko.
9. Ikasturte edo/eta mailako koordinatzaileen izendapena zuzendariari proposatzea.

Bere zereginak betetzeko, sailaren buruak eskolarik gabeko hainbat ordu izango ditu libre. Ordu kopurua araudiak edo Eskola Kontseiluak zehaztuko dute. Era berean, sail batzuetan eta euren tamainagatik edo ordutegia luzatzen delako, sailaren buruak sailburu laguntzailea eduki ahal izango du.

1. Sailburu laguntzaileak sailburuari berari lagunduko dio hari dagozkion lanetan, eta hura ez dagoenean haren ordezkari jardungo du, batez ere esleitzen zaion ordu-eremuan. Sailburuak bere zereginetako batzuk sailburu laguntzailearengan eskuordetu ahal izango ditu.
2. Sailburu laguntzailea zuzendariak izendatuko du sailburuaren beraren proposamenaren arabera, urtebetez jardungo du. Epea luzagarria izango da.
3. Sailburu laguntzaileak eskolarik gabeko hainbat ordu eduki ahal izango ditu libre. Ordu kopurua araudiak edo Eskola Kontseiluak zehaztuko dute, sailaren tamainaren arabera.

24. artikulua. Didaktika sailen buruen izendapena

Didaktika sailletako buruak urtero izendatuko ditu zuzendariak saila osatzen duten irakasleen artean aukeratuta. Aldez aurretik, entzunaldia egin beharko da eta honako irizpide hauek errespetatu behar dira:

1. Ezin izango da sailen buru izendatu zuzendaritza-karguren bat daukan inor.
2. Sailean HEOeko katedratikoen taldeko irakasleren bat baldin badago, horietakoren batek hartu beharko du kargua, aurreko puntuak zehaztutako kasuan izan ezik.
3. HEOeko katedratiko taldeko irakaslerik ez badago, sailak, aldez aurretik bozketa egin ondoren, HEOeko irakasle taldeko irakasleren bat proposa dezake, betiere ikastegian behin betiko destinoa badu eta bertan gutxienez urtebete badarama.
4. Izendatutakoan ezin izango du kargua utzi; hortaz, ikasturte hasierarako buruzagitza guztiak esleituta egon behar dute.
5. Sailaren buruak agintaldia amaitzen duenean utziko du kargua, edo bestela, arrazoiz uko egin eta zuzendariak onartzen duenean.
6. Saileko burua ez badago edo gaixorik badago, haren zereginak zuzendariak izendatutako irakasleak beteko ditu, eta horren berri emango die saileko kideei.

II. ATALA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA

25. artikulua.- Koordinazio pedagogikorako batzordea

Bilboko HEOean koordinazio pedagogikorako batzordea egongo da. Batzorde horren buru ikastegiko zuzendaria izango da, eta ikasketa-burua eta sailletako buruak izango dira bertako kide. Bertako idazkari sailletako bururik gazteenak jardungo du.

26. artikulua. Koordinazio pedagogikorako batzordearen eskumenak

1. Koordinazio pedagogikorako batzordea irakasleen klaustroaren batzorde bat da. Curriculum proiektuaren lanketa eta litezkeen aldaketak koordinatu behar dituzte.
2. Zeregin hori betetzeko, irakasleen klaustroaren ikuskaritzapean, honako eskumen hauek izango ditu:
 - a) Saitetako didaktikako programazioak egiteko eta berrikusteko jarraibide orokorrak zehaztea.
 - b) Ebaluazio, kalifikazio saioak eta azterketen egutegirako plangintza orokorra onartzea, ikasketa-buruarekin bat.
 - c) Ikastegiko jarduera eta proiektu guztien ebaluazioa sustatzea, aginte-organoen edo Hezkuntza Administrazioaren ekimenez egiten diren ebaluazioetan laguntzea eta ebaluazio horien ondorioz beharrezkotzat jotzen badira, hobekuntza-planak sustatzea.

V. KAPITULUA. TUTORETZAK

27. artikulua. Tutoretza eta tutoreen izendapena

1. Tutoretza eta ikasleen orientazioa irakaskuntza-zereginaren atala dira.
2. Bilboko HEOean irakasle bakoitza bere ikasle guztien tutorea da.

28. artikulua. Tutoreen zereginak

Tutoreari honako zeregin hauek dagozkio:

1. Ikasle bakoitzaren segimendua egitea, azken frogen emaitzak, eskolara huts egiteak eta gainerako datu aipagarriak jasotzeko dokumentuak betetz.
2. Eskolara hutsegiteak kontrolatzea eta aldizka, zuzendariordeari horren berri ematea.
3. Ikasturte hasieran, programazioaren helburuen, edukien eta irizpideen berri, eta ikasturtean zehar, euren ikasketa-prozesuaren berri ematea.

VI. KAPITULUA. IRAKASLEAK

29. artikulua. Irakasleen funtzioak

Irakasleei honako zeregin hauek dagozkie:

1. Irakaskuntzako jardueren programazioa egitea, ezartzea eta ebaluatzea, ikastegiaren curriculum proiektuari jarraikiz, bai ikasle ofizialentzat bai libreentzat.
2. Dagozkien taldeetako ikasleen tutoretza euren gain hartzea.
3. Esleitu zaizkien irakasle taldeetan parte hartzea, ekintza koordinatua eta eskolara egokitua definitzeko eta lortzeko.
4. Ikastegiaren beharrianak asetzeko, esleitzen zaizkien karguak eta zereginak betetzea; hala nola, sailetan, liburutegian, multimedia gelan, eta abarren ikasleei arreta egitea.
5. Ikastegiaren antolakuntzan eta jardun egokian laguntzea, ikasketa-buruaren eta dagokion saileko buruaren koordinaziopean.

6. Klaustroaren, sailaren eta eurei datxezkien irakasle taldeen eta hautatu izan dituzten taldeko aginte-organoen bileretara joatea.
7. Hezkuntza Sailak ezartzen dituen arau orokorrak eta aginte-organoei ikastegian ezartzen dituztenak betetzea.

30. artikulua. Ordutegiaren eta taldeen hautaketa

Ordutegiak eta taldeak honako irizpide hauei jarraituz hautatuko dira:

1. Erregistro pertsonalaren zenbakiaren ordenaren arabera, ordutegi jarraituak aukeratu ahal izango dira, eta horien barruan, eman beharreko maila edo mailak. Ahalegina egingo da irakasle bakoitzak bi maila baino gehiago eman behar ez ditzen.
2. Dena dela, lehenik eta behin zuzendaritza taldearen ordu-banaketaaren premiak errespetatu behar dituzte, eta ondoren, saileko buruenak, ordutegi jarraituen printzipioari eta Araudi honek, ikasketa-mailen atribuzioari dagokienez, ikasketa-buruari eta sailetako buruei eskaintzen dizkien eskumenei arreta eginez.
3. C1 Gaitasun mailako taldeak HEOeko katedratikoen taldeko edo HEOeko irakasleen taldeko irakasleei esleituko zaizkie ahal den heinean.

Gutxienez bi C1 talde ematen dituzten sailek astean 4,5 orduko murrizketa edukiko dute mailari dagokion materiala prestatzeko eta koordinazio lanak egiteko. Saileko buruak ikastaro horiek ematen dituzten irakasleen artean izendatzen den irakasleak edukiko du murrizketa hori, indarrean dauden xedapenen arabera.

31. artikulua. Irakasleen hutsegiteak, lizentziak eta baimenak

Ikastegi honetako irakasleen araubidea Euskal Funtzio Publikoaren Legearen, Hezkuntza Sailaren xedapenen eta bertan hartutako lan-akordioaren (XI. eranskina) mende dago.

Lizentziak eta baimenak honako xedapen hauen arabera eskatu eta emango dira. Barne araudiari dagokionez, honako hau xedatu da:

1. Aurreikusitako hutsegitea bada, irakasleak baimena eskatuko dio zuzendariari eta hark eman edo ukatu egingo du baimen hori eskaeraren izaeraren arabera. Eskaeran lanera huts egiteko arrazoiak eta iraupena eta ikasleei arreta egiteko proposamena adierazi behar dira, beharrezkoa bada, saileko buruaren oniritziarekin.
2. Ustekabeko huts egitea gertatzen bada, irakasleak ahalik eta eperik laburrenean jakinarazi behar dizkio zuzendaritza taldeari eta saileko buruari huts egitearen arrazoiak eta gutxi gorabeherako iraupena. Ahal den heinean, ikasleei arreta egiteko proposamena egingo du saileko buruak.
3. Ustekabeko hutsegitearen ondoren –iraupena zehazki izan dela ere– irakaslea berriro itzultzen denean, idatziz jakinarazi beharko dio zuzendariordeari noiz eta zergatik huts egin duen, eta beharrezko diren ziurtagiriak ekarri beharko ditu.
4. Hutsegite bakoitzari huts egin duen irakasleak idatzitako ziurtagiria dagokio. Goian aipatutako xedapenei jarraituz, medikuaren altak eta bajak, gertatzen diren unean bertan aurkeztu beharko dira ikastegian.
5. Indarrean dauden xedapenen arabera, hilabete bakoitzeko 1etik aurrera eta zehaztutako epearen barruan, zuzendaritza taldeak Lurralde ordezkariak bidaliko du irakasleen asistentzia-ordria.

II. TITULUA. BIZIKIDETZARAKO ARAUAK

I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

32. artikulua. Bizikidetzarako oinarria

Bilboko HEOak bizikidetzaren oinarritzat hezkuntza-erkidego osoak ikasleen eskubideak errespetatzea eta babestea dauka; eta horrekin batera, eskubide horien erabilera arduratsua eta ikasleei dagozkien betebeharrak betetzea ere, Titulu honetan zehazten denaren arabera.

33. artikulua. Eskubideen berehalako babesa

Ikasleen eskubide dira abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 6. artikulutik 20.era bitartekoetan jasotzen direnak (XII. eranskina). Irakasle batek eskubide horiek gauzatzea eragozten duen edo eskubide horien kontra egiten duen portaeraren bat ikusten badu ikasleren batengan, berehala jardun behar du eta portaera hori daukanari ahoz ohartarazteaz gain, ikasketa-buruarengana joateko aginduko dio.

34. artikulua. Betebeharrak zuzen gauzatzeko bermeak

Ikasleen betebeharrak dira abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 21. artikulutik 27.era bitartekoetan jasotzen direnak (XII. eranskina). Betebehar horiek urratzen direla ikusten badu, irakasleak berehala zuzendu behar du egoera hori, eta ikasleari ikasketa-buruarengana joateko aginduko dio portaera horrek hezkuntza-erkidegoko gainerako kideek euren eskubideak erabiltzea eragozten badu edo haien aurka egiten badu.

II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK

35. artikulua. Irakasleen inplikazioa ikasleen eskubideen babesean

Bilboko HEOeko irakasle guztiek babestuko dituzte abenduaren 2ko 201/2008 dekretuak ikasleei aintzatesten dizkien eskubideak (XII. eranskina), aipatutako dekretuak eta aginte-organoen jarraibideek xedatzen dutenari jarraituz.

36. artikulua. Eskolarako asistentziaren araubidea

Ikasle ofizialek orduan eta justifikatu gabeko huts egiterik gabe joan behar dute eskolara. Baimendutako justifikatu gabeko hutsegiteen gehieneko kopurua ikasturtean emango diren eskola-ordu guztien % 25ekoa izango da. Baimendutako hutsegiteen erdira (17 ordu) iritsi diren ikasleen zerrenda aldizka argitaratuko da HEOeko kristaletan, eta aipatutako gehienekora (% 25) iristen direnean, hau da, 34 ordu, idatziz jakinaraziko zaie.

Hutsegite guztiak egiten badituzte, ikasle ofizialek eskolara joateko eskubidea –nahiz eta ez duten matrikulatu ziren taldearekin azterketa egiteko eskubidea galduko– eta hizkuntza horretako matrikula ofiziala egiteko lehentasuna galduko dituzte.

Adinez nagusi diren ikasleen hutsegiteen justifikazioa ikasleak berak egin behar du, edozein lan-harremanetan eskatzen direnen antzeko ziurtagiriak aurkeztuta. Ikasleak irakasleari emango dio ziurtagiria eskolara itzultzen denean, edo, hutsegite luzeetan, hutsegitea hasi eta bi aste igaro baino lehenago.

Adin txikiko ikasleen hutsegiteak gurasoek edo tutoreek justifikatu behar dituzte. Guraso edo tutoreen batek ikasleren baten huts egiteak behin eta berriz eta irizpiderik gabe justifikatzen dituela uste bada, ikasketa-buruak bestelako ziurtagiriak aurkezteko eskatu ahal izango dio.

37. artikulua. Instalazioak erabiltzeko eskubidea.

Ikasle ofizialek soilik izango dute Bilboko HEOeko erabilera komuneko instalazioak erabiltzeko eskubidea, irakurgela eta multimedia-gela bereziki. Inguruabarrek ahalbidetzen badute, hori erabiltzeko matrikula libre bat gaitu daiteke.

III. KAPITULUA. BETEBEHARRAK GAUZATZEKO BERMEAK

38. artikulua. Printzipio orokorra

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak ikasleei ezartzen dizkien betebeharrak (XII. eranskina) urratzea beti izango da portaera desegokia, eta bizikidetzaren aurkako portaera edo bizikidetzaren aurkako portaera larria izan daiteke hezkuntza-erkidegoko gainerako kideen eskubideen erabilera eragozten badu, edo haien aurka jotzen badu.
2. Betebehar horiek urratzen direla ikusten duen irakasleak derrigor esku hartu behar du bizikidetzari doitzen ez zaion portaera hori zuzentzeko, aipatutako Dekretuan eta araudi honetan xedatzen denaren arabera.

39. artikulua. Portaera desegokiak

1. Portaera desegokiak dira lehen aipatutako Dekretuaren 30. artikuluan aipatzen direnak.
2. Bilboko HEOean portaera desegokiak, aipatutako Dekretuaren arabera, ikasle horren tutore den irakasleak zuzendu behar ditu.
3. Ikasketa-buruak zehaztuko du zer prozedura erabili, araudiaren arabera beti.

40. artikulua. Bizikidetzaren aurkako portaerak

1. Bizikidetzaren aurkako portaerak dira Eskubideen eta Betebeharren Dekretuaren 31. artikuluan zerrendatzen direnak (XII. eranskina).
2. Bereziki larritzat joko dira honako portaera hauek:
 - a) Desobedientzia-ekintzak, indiziplina edo adierazpen iraingarriak, desafiatzaileak edo mehatxatzaileak.
 - b) Azterketa-ereduak edo erantzunen kopiak lapurtzea.
 - c) Edozein ikasketa-agiri ofizial aldaraztea.
 - d) Lokaletan edo ikastegiko altzarietan, materialean edo agirietan kalteak eragitea.
 - e) Ordena asaldatzen duten portaerak.
3. Bizikidetzaren aurkako edozein portaera ikusten duen ikasleak ahoz ohartaraziko du portaera horren erruduna, ikasketa-buruarengana joateko aginduko dio eta gertaeren eta bere berehalako esku-hartzearen berri emango du, ikasketa-buruak –zuzendariarekin bat– zehazten duen prozeduraren arabera.

41. artikulua. Bizikidetzarako jarrera oso kaltegarriak

1. Bizikidetzaren aurkako portaera larriak dira Eskubideen eta Betebeharren Dekretuaren 32. artikuluan zerrendatzen direnak (XII. eranskina).
2. Bereziki larritzat joko dira honako portaera hauek:
 - a) Eskola-eremuan tabakoa, alkohola edo drogak kontsumitzea.
 - b) Beste pertsona baten lekuan jardutea.
 - c) Ikastegiko dokumentu edo erregistro bat aldatzea edo moldatzea, idatzizko euskarrian nahiz euskarri informatikoan.
 - d) Aurreko artikuluan adierazi diren portaeretakoren batean behin eta berriz jardutea.
3. Bizikidetzaren aurkako edozein portaera larri ikusten duen ikasleak ahoz ohartaraziko du portaera horren erruduna, ikasketa-buruarengana joateko aginduko dio eta gertaeren eta bere berehalako esku-hartzearen berri emango du, ikasketa-buruak –zuzendariarekin bat– zehazten duen prozeduraren arabera.

42. artikulua. Bizikidetzaren aurkako portaerak eta bizikidetzaren aurkako portaera larriak zuzentzeko prozedura

Bizikidetzaren aurkako portaerak eta bizikidetzaren aurkako portaera larriak zuzentzeko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak xedatzen duena bera aplikatuko da; betiere, bertako III. kapituluan aurreikusten diren aukeren bidez konpontzen ahaleginduta. Horrek ez ditu bazter uzten har litezkeen bestelako legezko neurriak.

III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA

43. kapitulua. Printzipio orokorrak

Euskal Eskola Publikoaren Legearen 16. artikuluan zehazten dena betetzeko eta ikasleek euren ikasketa-errendimendua objektiboki ebaluatua izan dadin duten eskubidea behar beste bermatzeko, titulu honetan ezarriko den berme-sistema erabiliko da. Sistema horren oinarria publizitate, informazio eta gardentasun printzipioa izango da, eta azken kalifikazioen erreklamazioa egiteko aukerak bermatzen du. (XIII. eranskina)

44. artikulua. Publizitatea

1. Ikasketa-buruak bermatu egin behar du ikasleek eta, adin txikikoak badira, euren legezko ordezkariak hizkuntza eta mailetako programazioetarako irispidea izan dezaten, helburuen, edukien eta lortu beharreko oinarrizko gaitasunen berri izateko.
2. Era berean, gutxieneko exijigarrien eta probak gainditzeko eta ziurtapenak lortzeko aplikagarri diren ebaluazio-irizpideen publizitatea bermatu beharko du.

45. artikulua. Ikasleen informazioa

Ikasketa-buruak komunikabide jariodun eta egonkorra bermatu behar ditu irakasleen eta ikasleen artean; halako eraz non irakaskuntza eta ikaskuntzarekin loturiko informazio guztia eskuratzeko modua izan dezaten.

46. artikulua. Azken kalifikazioen erreklamazioa

Ikasle ofizialek zein libreek egin eta gaingitu ez dituzten proben erreklamazioa egin lezakete eta aurrez aurre egiaztatu. Horretarako, gaingitu gabeko proben emaitzak argitaratzen direnetik 48 orduko epean aurkeztu behar dute erreklamazioa. Proba zuzendu duen irakasleak zuzenketa berrikusiko du, eta ikasleari deia luzatuko dio bere proba edo probak aurrez aurre egiazta ditzan. Desadostasunik egonez gero, ikasleak eskolako Zuzendariari erreklamazio bat aurkez liezaioke. Zuzendariak, orduan, dagokion Mintegiari aurkeztuko dio erreklamazio hori zer egin erabaki eta probari buruzko txostena egin dezaten. Txostenean azalduko da ea probak programatuta dauden edukiak, helburuak eta Departamentuak argitaratutako eta ezarritako ebaluazio-irizpideak betetzen dituen. Eskola-barruko erreklamazio-bide honen bidez adostasunik lortzen ez bada, eskolako erantzuna jasotzen duenetik 48 orduko epea izango du ikasleak alegazio-idazki bat aurkezteko Hezkuntzako Lurraldeko Ikuskaritzan.

47. artikulua. Deialdi-aldaketa

Azterketa deialdia aldatzeko (ahozkoa zein idatzizkoa), derrigorrezkoa izango da alde z aurretik hizkuntza bereko eta maila bereko beste deialdi bat antolatuta egotea. Beraz, deialdi bakarreko azterketetan ezin izango da aldaketarik egin.

Azterketa deialdia aldatzeko (ahozkoa zein idatzizkoa), hurrengo arrazoiak baino ez dira kontuan hartuko:

1. Unibertsitateko edo oposizioko azterketa.
2. Uko egin ezinezko lan kontua, eta departamentuak onartu beharko du.
3. Uko egin ezinezko osasun arazoa (ospitalizazioa, ebakuntza...), eta departamentuak onartu beharko du.

Aurreko kasuetakoren batean egonez gero, horrela jokatu beharko du ikasleak:

1. Idatziz eskatu beharko du aldaketa dagokion mintegian eta azterketaren egunaren aurretik (zenbat eta lehenago, hobeto).
2. Aldaketaren arrazoiak zeintzuk diren zehaztu beharko du, eta behar diren ziurtagiriak aurkeztu.